

Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetako parte hartzearen gaineko Agindu- proiektuari buruz



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUAREN AGINDU-PROIEKTUARI BURUZKOA; AGINDU PROIEKTUAK ARAUAK EMATEN DITU LANGILEEK 2023KO MAIATZAREN 28KO TOKIKO ETA ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTU ETA DAGOZKIEN ORDAINSARIAK JASO DITZATEN

Aurrekariak

2023ko apirilaren 13an, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak idazki bat helarazi zuen Lan Harremanen Kontseilu honetara; idazkian jasota dator Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuaren Agindu-proiektua, zeinak arauak ematen dituen langileek 2023ko maiatzaren 28ko tokiko eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten.

Agindu-proiektuaren testua Lan Harremanen Kontseiluko Txostenen Batzordeko kideei helarazi zitzaion eta 2023ko apirilaren 19ko bilera birtualez jorratu zen.

Agindu-proiektuaren testuari buruzko iritzia

Txostenean jorratzen den Agindu-proiektuaren testuak errepikatu egiten du, besterik gabe, Eusko Jaurlaritzan dagokion Sailak helburu berberarekin lehenago emandako beste arau batzuen edukia.

Honen aurreko proiektuen harira ere Lan Harremanen Kontseiluak eman izan ditu kasuan kasuko txostenak, eta bertan, sindikatu eta enpresaburu erakundeek izendatutako Txostenen Batzordeko kideen iritzia jasotzen ziren.

Ikusirik gaur egungo arauaren testuaren eta haren aurretik izan zirenen arteko berdintasuna, LHK-ko Txostenen Batzordeak gai honen inguruan txosten horietan esaten zuena errepikatu nahi du oraingoan ere.

Horrenbestez, 2023ko apirilaren 19an egindako bileran jarraian ematen dugun txostena onartu da:

Txostena

Kontseiluko kideek beren adostasuna adierazten dute Agindu-proiektuaren testuarekin, alegia, langileek 2023ko maiatzaren 28ko tokiko eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartu dezaten eta dagozkien ordainsariak jaso

**Lan Harremanen Kontseiluaren
txostena, 2023ko maiatzaren 28ko
hauteskundeetako parte hartzearen
gaineko Agindu- proiektuari buruz**



ditzaten arauak ematen dituenarekin, honako puntu honetan izan ezik: enpresaburuen erakundeak izendatutako kideen iritzian, ordaindutako baimena bakarrik aitortu beharko litzaieke langileei beren lan-jarduna eta hauteskunde-kolegioen irekitze-ordutegia lau ordu edo gehiagotan bat datozenean.

Bilbon, 2023ko apirilaren 19an.